CLASICOS RECUPERADOS 1993

# La semilla del diablo (Rosemary's Baby, 1968)

## Del 8 al 14 de Enero

## Teatro Principal

**El joven matrimonio Woodhouse se traslada a un viejo apartamento con algunos detalles extraños e inquietantes. La pareja de vecinos, aparentemente inocentes y encantadores, contribuyen a acrecentar los temores maléficos que se desprenden de la casa. Al quedar la chica embarazada, y ser empujada por sus vecinos a visitar a un médico de dudosas intenciones, se revelarán esas fuerzas del Mal.**

**La semilla del diablo** puede quedar como uno de los primeros y básicos títulos sobre el tema de la posesión sobrenatural, inicio de una tendencia creciente durante los años 70 con filmes como **El exorcista** o **La profecía** y definitivamente explotado en estos últimos años. Pero **La semilla del diablo** va más allá de esa anécdota. No se le puede considerar una incipiente película de terror, ni siquiera un concienzudo estudio sobre lo desconocido o lo irreal. Polanski, como ya había hecho anteriormente, e insistió en películas posteriores a ésta de 1968, trabajó sobre la inquietud y la muchas veces indiscernible frontera entre el bien y el mal, partiendo de un mundo absolutamente real para introducir al espectador en lo desconocido sin dejar de tener los pies en el suelo.



Su quinto largometraje, basado en la exitosa novela de Ira Levin y producida por el director de serie "B" William Castle, supuso la culminación de una etapa que se había iniciado con el debut en Polonia hasta llegar a integrarse en el cine americano. Fue un punto y aparte en la carrera de Polanski. Primero, porque conseguía por primera vez un éxito comercial rotundo, después de haber demostrado con **Repulsión** su inclinación hacia extraños y contradictorios sentimientos humanos. Segundo, porque un tiempo después de esta película se produjo la horrorosa muerte de su esposa Sharon Tate en la masacre perpetrada por Charles Manson y sus amigos.

La presentación de un pequeño mundo cerrado, asfixiante y demoledor, es una de las constantes en el cine de Polanski (**Cul-de-sac** o **El quimérico inquilino**, por ejemplo) que cobra especial protagonismo en **La semilla del diablo**: un matrimonio joven, esperanzado, pero finalmente absorbido por el estrecho entorno de su nueva casa (filmada en el edificio Dakota donde años más tarde fue asesinado John Lennon), los incordiantes vecinos y las siempre indefinidas fuerzas malignas que les rodean. Esa presión se va ejerciendo sobre la protagonista femenina del filme (una ajustada Mia Farrow), que le sirve a Polanski para dejar sitio a lo inconcreto: nunca quedará claro si la chica es víctima de la fuerzas del Mal, simplemente empujada por la secta que le rodea, o encuentra una fascinación en ciertas posturas irracionales, como cuando le da por comer con avidez el hígado crudo. Esa mezcla de temor y fascinación por lo desconocido se proyectará en el momento de ser madre, ante esa incógnita agridulce que supone la llegada de un niño, un ser desconocido.

John Cassavetes, peculiar director, tuvo en el papel del marido una muy bien aprovechada oportunidad para demostrar su calidad como actor. Se puede ver también alguna influencia de su cine en la forma de filmar algunas secuencias que utiliza Polanski, con la cámara al hombro, siguiendo a los personajes por el apartamento para dotar de dinamismo y desasosiego a las situaciones que desembocan en la justamemte famosa escena final. **La semilla del diablo** puede haber perdido, con el cine que ha venido después, cierta capacidad para provocar escalofríos. Pero sigue siendo una apreciable exposición de sensaciones y temores inaprensibles, piedra angular en el cine de un Polanski que veinticuatro años más tarde sigue dando que hablar.

Ricardo Aldarondo

Estados Unidos. **Director:** Roman Polanski. **Productor:** William Castle. **Producción:** William Castle's Enterprise para Paramount. **Guión:** Roman Polanski. **Argumento:** La novela de Ira Levin. **Fotografía:** William Fraker, en technicolor. **Música:** Krysztof T. Komeda. **Intérpretes:** Mia Farrow (Rosemary Woodhouse), John Cassavetes (Guy Woodhouse), Ruth Gordon (Minnie Castevet), Sidney Blackmer (Roman Castevet), Maurice Evans (Hutch), Ralph Bellamy (Dr. Sapirstein), Elisha Cook (Nicklass), William Castle (el hombre de la cabina telefónica). **Duración aprox.:** 137 m.



**Donostiako Udala**
**Ayuntamiento de San Sebastián**

KULTUR UDAL PATRONATUA

# La semilla del diablo (Rosemary's Baby, 1968)

KLASIKO BERRESKURATUAK 1993

## Urtarrillaren 8tik-14ra Antzoki Zaharra

**Woodhouse senar-emazte gazteak xehetasun bitxi eta kezkagarri batzu dituen apartamentu zahar batera leku aldatuko dira. Auzoko bikoteak, itxuraz inozente eta xarmangarria, areagotu egingo du etxeari darion sorginkeriazko beldurra. Neska haurdun geratuko denean eta auzoek zalantzazko asmoak dituen mediku batengana eramango dutenean, Gaizkiaren indar horiek azaleratu egingo dira.**

**La semilla del diablo** naturaz gaindiko posesioaren gaiari buruzko lehenengoetako eta oinarrizko filmetzat jo daiteke, 70eko hamarkadan **El exorcista** edo **La profecía** bezalako filmeekin gero ta arrakasta handiagoa izan zuen eta azken urteotan erabat hustiatu den joeraren aintzindari. Baina **La semilla del diablo** pasadizo horretatik haruntzago doa. Ez da beldurrezko filme hasi berri bat, ez eta ezezagunari edota irrealari buruzko azterketa zehatz bat ere. Polanskik, aldez aurretik jorratutako bideari eutsiz 1968ko filme honen ondorengo pelikuletan ere egin zuen bezala, kezka eta ongiaren eta gaizkiaren arteko muga sarri somagaitza landu zituen, mundu guztiz erreal bat oinarritzat hartuz oinak lurrean edukitzeari utzi gabe ikuslea ezezagunean murgiltzeko.



Bere bostgarren luzemetraia, Ira Levinen nobela arrakastatsuan oinarritua eta "B" saileko William Castle zuzendariak ekoiztua, Polonian debutatu zuenean hasi eta zine amerikarrean integratu arte doan aldiaren gailurra da. Mugarri izan zen Polanskiren karreran. Batetik, aurrenekoz lortzen zuelako erabateko arrakasta komertziala, **Repulsión**ekin giza sentimentu bitxi eta kontraesankorrerako joera agertu ondoren. Bestetik, filmea burutu eta handik gutxira Charles Manson eta bere adiskideek burututako sarraskian Sharon Tate bere emaztearen heriotz izugarria gertatu zelako.

Mundu itxi, itogarri eta suntsitzaile baten aurkezpena Polanskiren zinearen konstanteetako bat da (**Cul-de-sac** edo **El quimérico inquilino**, adibidez), eta protagonismo berezia hartzen du **La semilla del diablo**n: bikote gazte itxaropentsu bat, azkenerako bere etxe berriaren (handik urte batzutara John Lennon hilko zuten Dakota eraikinean filmatua), auzo izorranteen eta inguruan dauzkaten indar gaizto beti ere definitu gabeen ingurune estuak irentsia. Filmeko emakumezko protagonistak jasan beharko du presio hori (Mia Farrow egokituak), eta Polanski horretaz baliatuko da zehatzgabetasunari leku egiteko: ez da inondik ere argi geratuko neska Gaizkiaren indarren biktima ote den, inguruan daukan sektak bultzatuta, edo halako jarrera irrazionalek lilura sortzen ote dioten, gibel gordina antsiaz jaten hasten denean bezala. Beldurraren eta ezezagunak sortzen dion lilura horren arteko nahasketa ama izango den unean isladatuko da, haur baten, izaki ezezagun baten, etorrerak suposatzen duen inkognita gezaminaren aurrean.

John Cassavetes zuzendari bitxiak, senarra antzeztuz, ongi aprobetxatu zuen aktore gisa zuen kalitatea frogatzeko aukera. Bere zinearen eragina ikus daiteke, Polankskik sekuentzia batzu filmatzeko eran erabilia, pertsonaien atzetik apartamentuan zehar kamara bizkarrean ibili bait zen, amaierako eszena arrazoi guztiaz famatuan lehertzen diren egoeren bizitasuna eta sosegurik eza adierazteko. **La semilla del diablo**k galdu bide egin du, geroztik etorri den zinea dela eta, hotzikarak sortzeko gaitasuna. Baina sensazio eta beldur eskuraezinen adierazpen bikaina izaten jarraitzen du, hogeitalau urte geroago zer esan ugari sortzen duen Polanskiren zinearen giltzarria.

Ricardo Aldarondo

*Estatu Batuak. **Zuzendaria:** Roman Polanski. **Ekoizlea:** William Castle. **Ekoizpena:** William Castle's Enterprise, Paramount-entzat. **Gidoia:** Roman Polanski. **Argumentua:** Ira Levin-en nobela. **Argazkia:** William Fraker, technikolorean. **Musika:** Krysztof T. Komeda. **Antzezleak:** Mia Farrow (Rosemary Woodhouse), John Cassavetes (Guy Woodhouse), Ruth Gordon (Minnie Castevet), Sidney Blackmer (Roman Castevet), Maurice Evans (Hutch), Ralph Bellamy (Dr. Sapirstein), Elisha Cook (Nicklass), William Castle (telefono kabinako gizona). **Gutxi gora beherako iraupena:** 137 m.*



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

KULTUR UDAL PATRONATUA